



GEHIGARRI BEREZIA

Saritutako lanak

Ipuinak

1. Saria: Azken bisita. *Garazi Urretabizkaia*
 2. Saria: Lerro heze batzuk. *Iñigo G. de Txabarri*
 3. Saria: Azaroak 19. *Jon Ander Azpiroz*
- Accessita: Bihotzak agintzen du. *Idoia Etxabe*
Accessita : Mirena. *Eli Urdangarin*

Olerkiak / Bertsoak

1. Saria: Aitonaren apustua. *Nere Manterola*
2. Saria: Aurrera doan herria. *Garazi Urretabizkaia*
3. Saria: Iraganaren 1000. presoa. *Eñaut Martí*

Azken bisita

Garazi Urretabizkaia Zabaleta

Ia urtebete igaro da azkena bisitatu zenuenetik. Uda-berriak berarekin dakartzan txatxukeria erromantikoek bultzatuta-edo hartu zenuen bisitan joateko erabakia. Baina ordutik ez zara berriz bueltatu. Ez duzu bere berri jakiteko gogo askorik. Ala, agian, bai, baina ez zara egoerari aurre egiteko gai sentitzen. Badakizu non dagoen, bera ez da tokiz mugitu. Gainera, bere amak ematen dizu haren berri kalean topatzen duzun bakoitzean. Sekulako barne korapiloa sortzen zaizu gurutzatzen zareten aldiro. Bi sentsazio kontraerriek sortu lezaketen korapilorik sakonena. Batetik, Haritzen berri izatea gustatzen zaizulako; baina, aldi berean, bere amak sekula barakatuko ez zaituen sentsazioa sentitzen duzulako. Lan zaila amarena. Berarentzat ere gogorrak izan behar dute ezusteko topaketa horiek. Baina, azken aldian, ez duzu ikusi, hilabete eta erdi inguru daramatzazu haren berri-rik izan gabe. Beharbada hori da gaur zauden tokian egotera bultzatu zaituena. Arrazoiak arrazoi, joatea erabaki duzu. Eta ez da gutxi.

Goizeko bederatziak dira. Lainoek gupidarik gabe dihardute negarrez, haizeak zakar astintzen ditu inguruan dituzun zuhaitz biluziak eta mendi tontor zurituak ikusi daitezke urrunean. Negua da. Negu hotz eta zurbila. Baina zuri berdina zaizu. Aterkirik gabe zaude hortxe, aterperik gabeko nasaren alboan, begirada noraezean galdurik, irmo. Badirudi historiako ekaitzik bel-durgarrienak ere ez zaituela hortik mugituko. 5 minutu falta dira trena iristeko. Hotz egiten du kalean —negua da—, hotz zure barnean. Haizeak astintzen diharduen zuhaitzak bezala sentitzen zara, biluzik. Biluzik dago zure egunerokotasuna, mendi gainak bezain zuri zure burua. Bai, Ander, bai; negua da zure bizitzan. Dagoeneko urtebete iraun duen negu beltz eta gogorra.

Pausu bat eman duzu aurrerantz urrunean tren hotsa entzutearekin batera. Iada ez dituzu zure mugimenduak kontrolatzen. Txotxongilo bat bihurtu zara, errealismo gordinez josiriko munduan hari batzuetatik zintzilik dabilen txotxongiloa. Egiten duzun mugimendu oro inkontzienteki egiten duzu; programatuta egongo bazina bezala, robot bat baitzinaan. Eta pausua eman

duzun bezala, berdina sartu zara bagoi erdi hutsera: gehiegi pentsatu gabe. Dena goitik behera begiratu ostean, norabidearen aurka eseri zana. Atsegin duzu aurrerantz begira joatea, ondo sentiarazten zaitu. Paisaia zugana datorrela iruditzen zaizu, mundu berriak dituzula aurrean ikertuak izateko desiratzen. Etorkizunarekin lotzen duzu aurrerantz begira joatearena, ilusioekin, positibismoarekin. Baina orain ez zaude gai horietan pentsatzeko prestatua. Iraganean iltzatua geratu zara, amets galdu guztiekin batera. Horregatik erabaki duzu atzerantz begira esertzea. Zure aurrean, behin zure bizitzaren zati izan zen paisaia nola galtzen, hiltzen den ikus-tea gustatzen zaizulako. Eta trenak aurrera jarraitzearekin bat, atzean geratzen doaz zure itxaropen, nahi eta asmo on guztiak.

Urtebete pasatxo igaro da pesimismoaren iturriko ura edaten hasi zinenetik. Urtebete, egunak buruari etengabeko bueltak emanez igarotzen dituzunetik. Sarritan madarikatu izan duzu gau malapartatu hura. Askotan pentsatu izan dituzu hau horrela izan balitz, bestea era horretara egin izan banu... eta horrelakoak. Bizitza baldintzaz beterik dagoela ohartu zara. Alferrikako baldintzaz beterik. Baina ez eman buelta gehiagorik; azken batean, badakizu: balitz eta banu, alferrikako bi damu... Pozik egon behar zenuke, triste egon beharrean. Patuak zuk beste aukera bat izatea nahi izan duelako, zurekin ongi portatu delako; nahiz eta zu erabat ados ez izan.

Pixkanaka trena iristen doa bere geltokira. Laster motorrak isildu eta bide osoan bigarren plano batean egon den musika emekiro sartuko da zure belarrietan barna. Berehala altxatu beharko duzu nolabaiteko babesa ematen dizun aulki deserosotik, berehala murgilduko zara aspaldidanik ukatu, baztertu nahian zabiltzan errealitate gordinean. Eta beldur zara. Oso beldur...

Hasieratik izan zen berezia beren harremana. Baze-kiten ez zela erraza izango, bazekiten oztopo asko jasan beharko zituztela, baina dena emateko prest zeuden;

bata ez baitzen ezer bestea alboan faltaz gero, biak ziren bat: Ander eta Haritz. Institutuan ezagutu zuten elkar eta orduz geroztik banaezinak ziren. Hasiera batean ikas-kide, geroxeago lagun, batxilergoak iraun zuen bi urteen buruan guztiz finkatu zen beren harreman sentimentalak. Ezkutuan ibiltzen ziren lehen egunetan, harripatuak, baztertuak izateko beldurrez. Baina, azkenean, elkarrekiko zuten maitasuna denen aurrean adieraztea erabaki zuten. Espero ez zuten babesak jaso ostean, gus-tura zeuden. Ez zuten besterik behar zoriontsu bizitze-ko.

Zortzi urte zeramatzen batera, zortzi urte elkarren itzal izaten. Horregatik kostatzen zitzaion Anderri horrenbeste gertatutakoa onartzea, berak ez zuela errurik aitortzea. Udazkena zen. Udazkeneko gau sargori bat, San Martin egunaren inguruan hego haizeak giroa lasai-tzen duen egun horietako bat. Igandero bezala, elka-rrekin pasa zuten eguna. Lehenik, hondartzan izan ziren ur ertzean elkarri eskutik helduta paseatuz; ondoren, mendi magalean eserita, ilunabar erromantikoetan erromantikoena begiztatu zuten, elkarri pasioz beteri-ko maitasun hitzak esaten zizkieten bitartean. Eguna ondo amaitzeko, afaltzera zihoazen, kategoria dezente-ko jantoki batera. Dena zuten beren alde: izarrez esta-litako zerua, giro sargoria, gehien maite zutena alboan, ia biribiltasun perfektura iristen zen ilargia testigu bakar... Egun perfektua zen. Perfektua abiadura biziz zetorren Citroen C3 hark semaforo gorria jan izan ez balu.

Orduan hasi zen eromena. Ander bere kabuz atera zen autotik. Haritzek, ordea, bertan jarraitzen zuen, bat-batean izoztuta geratutako silueta bailitzan. Berehala iritsi zen ambulanzia, berehala sartu zuten erdi hilik, erdi bizirik zegoen Haritzen gorputza bertan. Eta horre-la iritsi zen gaur egun bere bizileku den ospitalera. Oka-sioak merezi zituen argi eta soinu guztiekin. Ohore guz-tiekin.

Trenetik jaitsi eta pare-parean aurkitu duzu, beti bezain hotz, beti bezain zurrin. Sarrerako argiz josiri-ko letrak dira bertara sartzera bultzatzen zaituzten baka-rrak: Basurtoko Ospitalea. Ez duzu sartu nahi, baina oinek aurrera zaramatzate. Zerbaitek barrura sartzera behartu nahi bazintu bezala, norbaitek bultzatuko bali-zu bezala. Sartzearekin bat, are beherago jaitsi da azken urtean lur azpian eduki duzun moralak. Alde guztietan

ikus daiteke tristura. Eta ikusi ezin denetan, sumatu egiten da. Fikziozko pelikula bateko eszenatokia diru-di. Gaixo bakoitzari begira geratuko zinateke, baina ezin duzu. Zerbaitek aurrera zaramatza...

Azkena bertan izan zineneko uneak datozkizu buru-
ra. 223. gela. Zuria, izoztua, Fluoreszentearen argiak lurrean islatzen ziren, zure begietara bideratuz. Eski pista batean zeundela iruditzen zitzaizun; azken batean, eguzki izpiak elurra den maindire zurian islatzen dire-nean itsutasun sentsazio bera sorrarazten dizute. Para-je antzekoak direla otu zitzaizun, eta egia da. Bietan galdu egiten da denboraren nozioa, zuritiesun horretan erraz gal zintezke. Infinitate horretan noraezean aurki-tzen zara, iraganak etorkizunarekin topo egiten duen puntuan bezalaxe, ez aurrera ez atzera. Eta gaizki pasa zenuen. Oso gaizki.

Mila korapilo, mila hodi. Kanpotik gorpura, gor-putik kanpora. Hantxe zegoen, ohe gainean, maindire zurien pean estalirik, Haritzen gorpua. Erdi hilik. Erdi bizirik. Baina bere gorputza bizirik mantentzen zuten hodiekin osatutako korapilo oro baina handiagoa zen bat sortu zitzaizun zuri barnean. Zuk egon nahi zenuke bera zegoen tokian, zuk izan behar zenuen bisitak jasotzen zituena. Min eman zizun zure lagunaren gorpua ohean geldirik, zerraldo, ikusteak. Min, inork zenbat iraungo zuen ez zekien denbora luze batez berarekin ezin egongo zinela pentsatzeak. Eta oraindik ere min ema-ten dizu.

Iraganeko mamua buruan bueltaka duzularik zoaz aurrerantz, pausu azkarrez, helmugara iristeko gogo amai-gabea izango bazenu bezala. Birusez eta esperantza kutsuz umeldutako igogailuan sartu zara, beren senideak bisi-tatzera doazen beste hainbat lagunekin batera. Botoia-ri eman eta ateak itxi dira. Geroz eta gertuago zaude, geroz eta urduriago. Iritsi zara bigarren solairura, han ikus dezakezu, pasillo zuriaren amaieran, duela urte-bete bisitatu zenuen atea. Bazoaz, egiten ari zarenaz guztiz seguru egon gabe. Arnasa sakon hartu eta bota, hartu eta bota. Atea ireki duzu pixkanaka, soinu han-dirik egin gabe, inork entzutea nahi izango ez bazenu bezala...

—Kaixo, egun on!

—Egun on...

—Pozten naiz zu ikusteaz. Hilabete osoan izaten duen

lehen bisita zara. Badakit ez diozula antzemango, baina atetik sartu zaren lehen momentutik poztu egin dela esango nuke. Hitz egin ezin badu ere, ia ezer ikusten ez badu ere, sentitu egin zaitu. Zatoz, eseri ondoan! Hitz egiozu kanpoko egoeraz, familiaz, eguraldiaz, nahiduzunaz. Ni joan egingo naiz une batez; bakarrik utziko zaituztet. Ziur gauza asko dituzuela elkarri kontatzeko...

Ez, Ander, ez. Ez zara ametsetan ari. Hau da azken hilabete honetako egoera. Horregatik ez zenuen aspaldian kalean topatu, horregatik ez duzu azken egunotan nire berririk izan. Bera zen egunero nire ohe ondoan zegoena, bera ezeren truke 24 orduz ni zaintzen ziharduena. Esperantza zuen, ongi jarriko nintzen esperantza trinkoa. Baina nik ezin nuen gehiago. Banekien, jakin, esnatuz gero ez nintzela nire kabuz ezer egiteko gai izango, guztiz puskatuta, birrinduta geratuko zirela nire 26 urteak. Bai, Ander. Amore eman nuen; ez nuen nire bizitzagatik behar beste borrokatu. Eta zu ere amore ematen zabilta. Ez da justua. Biotako bat ongi ateratu zen, eta pena ematen dit bizitzak eman dizun aukera berri hori nola galtzen ari zaren ikusteak. Pena eta min handia, nik aukera hobeto aprobeztatuko nuela iru-

ditzen zaidalako.

Ia urtebete igaro da azkena bisitatu ninduzunetik. Min eman dit denbora guzti honetan zure presentzia antzeman ez izanak. Baina badakit ezin nauzula burutik kendu. Ulertzen zaitut, gogorra izan behar du nire egoeran zegoen norbait bisitatzera joateak, gogorra hainbeste maite duzun norbait ezer egiteko gai ez dela ikusteak. Baina nik, kanpotik ematen ez bazuen ere, pentsatzen jarraitzen nuen, sumatzen. Banekien une oro zer gertatzen zen nire alboan. Banekien bezala, hiltzen nintzen egunean zen gertatuko zen.

Hilabete daramat zuri seinaleak bidaliz, bisitan etor zaitez. Kosta zaizu hilabetez nire ama ikusi ez duzula ohartzea. Ala, agian, hasierako momentutik ohartu zinen eta ez zenion garrantzirik eman, nori daki. Baina orain hemen zaude; ikusi duzu lehen ni nengoen tokia orain berak bete duela. Eta nirekin izan ez zenuen ausardia eskatu behar dizut. Zaindu ezazu, mesedez, ni zainduko ninduzun bezala. Ez dauka inor gehiago inguruan; entzun dituzu medikuaren hitzak. Egon zaitez berarekin, une oro bere alboan. Ni hemendik zure alboan nagoen bezalaxe. Jada ez nauzu fisikoki gehiago ikusiko, baina badakizu non dagoen nire bizileku berria. Bertara gehiagotan joango zarela espero dut. Hona lehenago etorri izan bazina...

Lerro beze batzuk

Iñigo Gaiton G. de Txabarri

Eskoilera muturretik harago deskubritzeko dagoenagatik... zuentzat!

Hegan egingo du hegoak dituen bitartean,
gaiztoturiko itsasoaren gainetik aurkako haizearen aurka.
Zugan du burua, zuretzat azal eta arnas. Osorik.

Ura bi eskuez heltzen saiatzen da, arrakastarik gabe.
Arroken aurkako borroka etengabeetako zipriztinak, freskoak horiek,
beharrezkoak ditu. Egunero. Ezagutu zintuenetik. Izan ezintzat zaituenetik.
Mezutzat ditu zipriztinak.
Berri onak ekartzen dizkioten mezulari koadrilak omen dira.

Ur gazian bere aurpegiaren kopia ageri da: "islada!" oihukatu du hiztegiak.
Konplizitate aparta omen du berarekin.
Keinu egiten dio, eta berak ere bai.
Barre egiten dio, baita berak ere.
Zalantza batek, ordea, ezinegona sortzen dio.
Begiak ixtean, uretan marraztuta jarraituko al du bere aurpegiak?
Berak ez du ikusten eta urduri jartzen da.
Orduan, zerura begira ixten ditu begiak, badaezpada ere.
Zure irudia ikusten omen du.
Behera begiratutakoan, bere erretratua; gora begiratutakoan, zurea.
Bi irudi, bi urdintasun ezberdinetan marrazturik. Goikoa eta behekoa.
Itsasoan sartu du eskua bere aurpegiari heltzeko.
Alde egiten dio.
Zerura luzatu du bestea, zurea harrapatu eta laztantzeko.
Ez da iritsi.
Ezintasunak ziztadak ematen dizkio esku busti gazituan...

Zure hutsune iluna du erruduntzat.
Sentimendu guztiak kaiola batean sartuta ditu, itxita.
Kaiolako zuloak arnasa hartzeko omen dira.
Burdinazko barrak, lurrera erortzean heltzeko.

Hegoko haizeak azala goxatzen dit, laztandu egiten nau.
Itsasoak atsegin du, indartsuegi putz egiten ez badu, dotore uzten baitu.
Hostoak erortzearekin batera hasten omen da hego-haizea dantzan.
Hego-haizea dantzan hastearekin batera hasten omen dira hostoak erortzen.

Berez, udazkenean.
Berez, udaberrian.
Loreak loratzen hastearekin batera pozten omen dira bihotzak, saltoka jarritz.
Bihotzak saltoka jartzearekin batera hasten omen dira loreak loratzen.
Loreek gustuko dute eguzkia, bizitzeko indarra eta ilusioa ematen baitizkie.
Udaberriko eguzkiak azala berotzen dit, poztu egiten nau.

Olatuek musika egin ohi dute espresatzeko.
Errespetuz, erritmo bati jarraituz, berriak ekartzen dizkigute.
Urrutitik etortzen dira, bidean gertaera ezberdinak bilduz.
Dena txukun jaso dutenean, kostara iritsi eta banaka,
banaka abesten digute.
Lehenengoa zuzentzen zaigu, hasieran sendo eta ziurtasunez.
Pixkanaka agurtzen joango da, gero eta tonu baxuagoa erabiliz.
Umiltasunez agur esan eta itsasorantz doanean,
hurrengoarekin gurutzatuko da.
Honek ere berdina egingo du.
Eta hurrengoak, eta hurrengoak... guk jakin beharrekoak amaitu arte.
Etorritako bidetik joango dira, berriz bueltatzeko asmoz.

Oraingoan ere zutaz ezer jakin gabe geratu naiz.
Bihar ere hemen izango naiz, eta etzi, eta etzidamu...
itsasaldiren batek nire barneko berri-gosea ase dezan.

Abilak dira sugandilak, baita neguko haizea ere.
Lehenak edozein hormetako edozein txulotxotik sartzen baitira, barruan edozer egonda ere.
Bigarrenak ere edozein zirrikitu nahikoa izaten du edozeinen etxera sartu eta edozein hozteko.
Sugandilak eguzkiarekin irteten dira, etxeak ere suarekin berotzen.
Zu?
Behin sartu zinen, azaleko zulotxo despistaturen batetik edo,
baina atera ezinda zabilta.
Izerdiak barneko zikina ateratzen omen du.
Hobe lukete beste gauza batzuk ere tartean aterako balira.
Edo atera ahalko balira.
Zure gordeleku izatera kondenaturik?
Bai, mesedez!

Begiratu nizun, begiratu zenidan. Ikusi zintudan, ikusi ninduzun.
Ezagutu zintudan, ezagutu ninduzun. Ukitu zintudan, ukitu ninduzun.
Poztu zintudan, poztu ninduzun. Barre egin nizun, barre egin zenidan.
Niretzat nahi zintudan, zuretzat nahi ninduzun.

Agurtu zintudan, agurtu ninduzun.
Oraindik gogoan zaitut, oraindik gogoan al nauzu?

“Itsasoa zabala da.
Ba omen da bertan edozein sute itzaltzeko ur adina.

Bihotzean pizturikoa itzal ezina, samina,
nire barneko ikazkina.
Lerro hauen arrazoi gordina,
gorputz osoko mina,
orain ondo nintzateke,
existituko ez bazina.”

Ardo botila huts bat izango dute goiko lerroek bizileku edo itsasontzi.
Zure berririk iristen ez zaidan arren, berdin zait.
Itsasora jaurtikiko dut botila.
Ez dakit non zauden, ezta norekin ere, baina iritsiko zaizkizu lerroak, bai.
Zauden lekuan zaudela ere, egongo gara,
ametsak beti irabazi izan baitituzte kilometroen aurkako gudak.

Azaroak 19

Jon Ander Azpiroz Otegi

Bekatua egina zegoen; nahiz eta nahigabe egina izan, egina zegoen. Nik ez nuen nahi; baina, ez dakit zergatik, gatiluari tira eta armak tiro egin zuen belatz ederra lurrean arimarik gabe utziz. Gainera, iluntzen hasia zegoen eta tiroa inguru osoan entzun zen. Inor etortzerako, belatza lur azpian gordetzea erabaki nuen; baina arnasa hartzeko, instant batean, atzera begiratu eta niregana zetozen auto baten bi argi ikusi nituen. Segituan ohartu nintzen basozainak zirela eta hankei azkar mugitzeko agindua ematen nien, baina ezin nuen. Korrika egin nahi nuen, baina geldirik nengoen eta, gainera, basozainek bazekiten arriskuan zegoen espezie bat erail nuela. Nigana zetozen, gero eta gertuago, gero eta hurbilago, eta azkenean... Danbateko handi batez esnatu nintzen, bihotzak bira eman zidan, eta, eskua kopetara eramanez, nabaritu nuen artean izerditan nengoela. Amesgaizto bat zen, ehiztari gazte baten amesgaiztoa. Atearen zirrikitu batetik begiratu jakin izan nuen zein izan zen amets hartatik salbatu ninduen danbatekoa. Aitak mikrouhinaren ateari ixterakoan eman zion danbatekoa zen. Huescara joatekoa zen lehengusuarekin batera, basurdeak ehizatzea, eta gosaltzen ari zen. Orduan ohartu nintzen, baita ere, oso goiz zela, gu Huescara joateko goizeko 4:00etan jaikitzen baikara eta, ni ez nindoa-

nez, oraindik beste ordu batzuk nituen lehengo amesgaizto horrek galarazitako loa berreskuratzeko.

Goiza oskarbi zegoen eta, gosalduta ondoren, janzen hasi nintzen: kirola egiteko —alegia, izerditzeko— kamiseta, aurreko urtean osabak eman zidan alkandora lodia, mendirako galtzak eta jertse arin bat. Ondoren, garrakera jaitsi nintzen eta han botak jantzi eta ehizarako txalekoa hartu nuen; bertan irrati transmisorea eta 00ko kartutxo asko zeuden. Azeritara joateko asmoa nuen gure ehiztari koadrilarekin batera, eta, ohikoa den bezala, ehiza elkartera joan nintzen. Han zeuden nire lagun ehiztariak ere, artean ondo esnatu gabe; gosariko kafearen kafeina efektua egiten hasteko zeukaten; geroxeago nire osaba eta aitaren osaba etorri ziren. Ni nintzen gazteena eta, ondoren, nire osaba zegoen, 30 urterekin; gairontzeakoak hau baino zaharragoak ziren; eta batzuk, edadetuak. Ordu erdiz nora joan erabakitzen egon ginen eta, erabaki genuenean, Patxiri, azeritarako ehiza-zakurrak dituen lagun eta ehiztariari, hots egin genion, aparkalekura etortzeko esanez.

Denok joan ginen aparkalekura eta Patxi ere berehala etorri zen. Han guk genuen asmoa azaldu genion eta ondo iruditu zitzaion; beraz, ehizaldian bakoitzak egon beharko zuen postuak edo lekuak erabakitzen hasi ziren:

—Ni jarriko nauk hango baserriaren azpialdean!
—esaten zuen zaharrenak.

—Ba ni honako soroaren gainaldean jarriko nauk!
—gaineratu zuen osabak.

—Orduan nik azeri zuloetan jarri beharko diat
—adierazi zuen batek

—Eta ni erreka zuloan geldituko nauk —azaldu zuen
besteak. Eta denak egokitzen zitzaien lekua jakin zute-
nean, nik Patxiri honela galdetu nion:

—Patxi, guk zakurrak nondik botako ditugu?

Niri, izan ere, zakurrekin joatea gustatzen zait, men-
dian ibiltzea, eta ez leku batean geldirik egotea. Eta,
orduan, Patxik erantzun zidan:

—Behe-behetik joango gaituk eta gero ikusiko dia-
gu; ba al duk eskopetarik? —eta nik buruarekin ezetz
egin nion.

—Bada, berdin ziok, neuk utziko diat kalerik egi-
ten ez duen bat —eta, hori esatearekin batera, barre txi-
ki bat atera zitzaion.

Honela, bada, denok mendira abiatu ginen autoetan
sarturik. Ailegatu ginenean, Aitorrek artean jartzeko
zeudela esan zidan mugikorretik eta, jartzen zirenean,
hots egingo zutela. Lagunak, berriz, deitu aurretik pres-
tatzen hasi ginen. Lehendabizi, Patxik bere eskopeta
kargatu zuen, eta, ondoren, niri eman zidan beste bat:
bi kanoi zituen eta, berak esan zidanez, inoiz ez zuen
kalerik egin. Gero, gurditik zakurrak atera genituen eta
sokaz lotu. Bost ziren guztira: Brutx, azeri zakur on bat,
baina, urteen pisuagatik, makaltzen hasia zegoena; Ritx
eta Fina, lehendabizikoa arrastoari zaunkarik egiten ez
ziona eta bigarrena isiltzen ez zena, biak Brutxen umeak;
Toni, grifoi frantses bat, artean gazteegia zena eta Litri,
geldirik egoten ez zen ikatz koloreko zakur txiki baina
alu bat. Bostak hartu eta abiatzeko abisua jaso ondoren,
basoan sartu ginen. Aurrena, pinudi bat zeharkatu genuen;
ondoren, pagadi bat eta, erreka bitan zatitzen zen lekua
zeharkatzean, Litrik zaunka egin zuen eta, hori entzu-
tean, beste guztiak askatu genituen; gero, Patxi hone-
la mintzatu zitzaidan:

—Joan hadi azkar eskuineko errekaaren albotik eta
han azalduko zaik —bi aldiz pentsatu gabe abiatu nin-
tzen, eta, oraingoan, ametsean ez bezala, hankek eran-
tzun zuten.

“Han azalduko zaik” esaldia entzutean, azeriren bat
etorriko zela uste nuen; baina segituan ikusi nuen ez
zela azeria. Orkatz bat zen, oreina baino txikiagoa den
zerbido bat, eta handik uxatu nuen zakurrei haren atze-

tik joaten utzi gabe. Ondoren, Patxi zegoen lekura joan
nintzen eta horrela zuzendu zitzaidan:

—Orkatz alu hauek zakur guztiak izorratuko zizki-
gutek. Niri ere beste bi pasa zaizkidak gainaldetik, mada-
rikatu horiek! —segituan ohartu nintzen oso haserre
zegoela eta irratitik egoeraren berri eman genuen.
Orduan, Fina azaldu zen; hark ez zien orkatzei segitu
eta, Toni eta Litri ere han genituenez, bestaldeko men-
dira joatea proposatu genien adiskideei. Baietz esan zuten
eta segituan jarri ziren jarri beharreko lekuetan.

Horrela, berniz abiatu ginen beste mendiko erreka-
ren ondoan zegoen bidexkan barrena, eta, eroritako base-
rri batera heldu aurretik, Finak burua altxa zuen, zer-
bait usaintzen zuela adieraziz. Askatu eta berehala hasi
zen zaunka; irratitik denak ohartarazi genituen, azeri-
ren baten arrastoa hartu zutela eta argi ibiltzeko esanez.
Zakurren aharrausia gero eta sarriago eta ozenagoa zen;
baina ehiztariak zeuden aurkako alderantz, ordea. Patxi
korrika joan zen ihiziari aurre hartzeko asmoarekin; bai-
na, hura jakintsua izaki, lehendabizi joan ginen men-
dira pasatu zen. Ni, bitartean, eroritako baserriaren ondoan
nengoen, ene buruari bueltaka.

—Behin goizeko bederatziak pasatzen badituk, alfe-
rrik ibiliko haiz —esaten zuten ehiztari zaharrek eta ni
ordurako aspertzen hasia nengoen. Halako batean,
Patxik transmisoretik honela galdetu zidan:

—Baina Jon... non hago?

Eta nik erantzun:

—Eroritako baserria dagoen lekuan.

Haserretu egin zitzaidan:

—Eta zer egiten duk hor? Etor hadi hona!

Ni ere haserretzen hasia nengoen; baina, zaharraren
esana betez, bidean behera abiatu nintzen. Orduan, zaku-
rrak zaunkaka entzun nituen berriz eta ehiztariak zeu-
den aldera zetozela ohartu. Orduan, Patxik honela esan
zidan, eta ez zait sekula ahantziko:

—Jon, ez hadi hagoen lekutik mugitu!

Eskopetari gogor eutsi nion. Baina, basoan gora begi-
ratu nuenean, lurjausi batek eragindako pendiz bat iku-
si nuen, eta haren gainetik pasatzen bazen ez nintzela
ohartuko konturatu ere egin nintzen. Honela bada, bar-
nean nuen ehiztari senari jarraituz, pendizaren gainal-
dera igo nintzen, eta handik bai, handik erreka, bidex-
ka eta lurjausiaren goi alde hartzen nituen pinu han-
di baten ondotik. Ehiz orak nigandik gero eta gertua-
go sumatzen nituen eta adrenalina igotzen ari zitzaiz-
dan, *saxarko* nondik aterako zen asmatu ezinik. Momen-

tu hartan eskinosoak, norbait edo zerbait mugitzen ikusten dutenean karraka luze bat egiten duten hegazti koloret-suak, karraka ari ziren nire aurreko pagadian. Une hartan, pinu ipurdi batetik bestera zerbait pasatzen ikusi nuen.

Lehendabiziko begiratuan katu bat iruditu zitzaidan; baina, badaezpada, eskopetaren kanoiak hara zuzendu nituen.

Han ikusi nuen: azeria zen eta korrika txikian zetorren nigana.

—Kontxo! azeria duk eta —pentsatu nuen nire baitan eta apuntatu egin nion. Une hartan ez nuen ez zakurrik, ez irratiko deirik, ezta txori soinurik entzuten; azeria eta biok bakarrik geunden eta, gehiago pensatu gabe, gatiluari tiratzen saiatu nintzen, baina ezin!

Segurua jarri nion eta berriz kendu: klik-klik. Baina azeria ere ohartu zen zerbait ezberdina bazela han eta burua altxatu zuen, niri zuzen begira jarriz. Orduan, bai, ordea! Orduan, bi aldiz pensatu gabe, gogor tira nion gatiluari eta armak tiro egin zuen, azeria lurrean ziplo utziz. Tiroaren ondoren, segituan zen Patxi galdezka:

—Zeinek egin du tiro hori? —baina nik ez nuen ezer esan, eta osabak horrela erantzun zion:

—Azeri hori honezkero sartu duk zuloan —eta momentu hori aprobe txatu nuen egia esateko:

—Ez, ez duk zuloan sartu.

—Bota al duk? —segituan egin zidan osabak galdera.

—Bai, bota diat! —eta Patxik, orduan:

—Hori duk eta! Ez al haiz, bada, inoiz hilko! Era-kutsi azeria zakurrei —eta nabaritu nion euforiko zegoela; baina pozik handiena nik nuen.

Segituan etorri ziren Fina eta Litri zaunka eta, ondoren, Ritx eta Toni. Denak lotu eta kotxera abiatu ginen, azeria eskuetan nuela. Azeria emea zen eta bazekien goialdean beste ehiztariak zeudela eta baita behean Patxi eta ni genbiltzala.

Zakurrak gurdian sartu eta taberna batera joan ginen, hamaiketako egitera; denek zoriondu ninduten. Nik bota ez banu, azeri hori asko gaiztotuko zela, eta ezingo genuela ehizatu, eta gazte batek lehenengo aldiz azeria botatzean esaten diren eta egiten diren bromak eginez hasi ginen hamaiketako egiten. Gero leku hartan gertatutako beste ehizaldiak, lehenago edukitako zakurrak eta azeri asko ziren garaiko kontuak izan ziren hitz egiteko ibili genituen gaiak. Azkenik, eta, emozioaz eta sagardoaz pixka bat zoraturik, argazki batzuk atera genituen. Eta, azkenik, etxera joan nintzen. Egun hartan ez zegoen ni baino bere buruaz harroago zegoen beste ehiztaririk. Horrelakoa izan zen nire iazko azaroaren 19a.

Bibotzak agintzen du

Idoia Etxabe Arruti

2000ko urtarrilaren 4a, asteartea

Gaur uste baino goizago argituko duela dirudi, nire etsipenerako. Lehenago berotu nau gortinak zeharkatzeko gai den eguzki izpiak. Egunerokotasunean murgildurik, gaur ere eskolara joan naiz, baina oraingoan ezberdina izan da: Jokinek ez baitit goizeroko musua eman, ezta keinu maitekorrik eskaini. Jada, 24 ordu pasa dira Jokinek utzi nauenetik. Egia esan, inoiz ez dut Jokin maite izan; halere, behin nire besoetan ez dagoela, nolabaiteko tristura sentitu dut barnean. Kontraesankorra badirudi ere, ez dut maite, baina behar dut. Lehen ez nintzen batere kalera ateratzen; alde guztietan baztertutik zegoen neska horietako bat nintzen. Lagun bakarra nuen orduan: June. Neska honek, hutsaren hurrengoaren mentalitatetik zerbait banintzela pentsarazi zidan. Bera ez zen baztertutako neska; baina, halere, niregana jotzeko adorea izan zuen. Horrek suposatzen zuen ondorio txar guztiez jabeturik. Halere, ez zen ezer pasa, inor ez baitzen bere aurka jarri nire lagun egiteagatik. Besterik gabe, pixkanaka jendeak koadrilako beste bat bezala onartu ninduen. Dena perfektua izateko gauza bakarra geratzen zitzaidan, ordea: maitasunaz gozatzea. Eta hori nik lan askorik egin gabe etorri zitzaidan: Jokin nitaz maitemindurik zegoen eta elkarrekin irteteko eskatu zidan. Nik baiezko borobila eman nion. Eta, geroztik, ateratzen hasi ginen. Jokinek ikaragarri maite ninduen; ni bere bizitzan zentzua zuen bakarra nintzela esatera ere iritsi zen. Ni gustura nengo; ez ninduen batere erakartzen, baina sekula ez nintzen horren maitatua sentitu. Denborarekin, ordea, maitasunean bi aldeetako batek beretik jartzen ez badu, ezerk ez duela funtzionatzen konturatu nintzen, eta berrari min besterik ez niola egingo horrela. Baina ez nuen nik harremana eten beharrik izan, bera ohartua baitzegoen nik ez nuela bera maite.

2000ko urtarrilaren 6a, osteguna

Atzo ez nuen idazteko astirik izan, oso lanpetuta nenbilen-eta egin berri dugun azterketarako ikasten. Egia esan, nire ikasketetarako ordu estrak ez ziren alferrik izan: ikasten pasatako orduak eman dute beren frui-

tua. Gaur idazteko gogorik ez dudanez, lerro bakan hauekin gaurkoz amaitutzat ematen dut.

2000ko urtarrilaren 7a ostirala

Ostirala, asteke egunik onena izateaz gain, astero bezala asteke errepatotxo egiteko garaia da. Ostiraletan June eta ni herriko parke jendetsueneko eserlekuan eseri eta asteen zehar pasa zaizkigun gauzetaz berriketan egoten gara, elkar laguntzeko aholku baliagarriak emanez. Gure nahi eta pena guztiak elkarri kontatuta, lasai geratzen gara hurrengo ostirala arte. Ostiral hau, halere, berezia izan da, orain dela bi astetik ez baikara elkartu. Juneri amona hil zitzaion eta, aste horietan bereziki sentibera zegoenez, ez zuen ezertaz hitz egin nahi; etxean geratzen zen bakarrik, bakardadeak pena guztiak uxatu behar balizkio bezala.

2000ko urtarrilaren 8a, larunbata

Bart amets arraro bat egin nuen; baina ez naiz izutu, azken batean amets soil bat besterik ez baitzen. Halere, orri zuriaren aurrean kontatu behar dut, aurrez aipatu dudana egiatik urrun egoteko arriskua izan baitezake.

“Bero zegoen. Juneri hondartzara joateko proposamena egin diot. Ez nekien zer dela eta deitu nion, argi asko bainekuan erantzuna. Bere erantzuna baiezkoa izan zen. Halere, esperotako erantzunaz gain, beste esaldi bat ere erantsi zuen Junek: 'Bai. Zergatik ez gara joaten hondartza nudista batera?' Beste behin ere, bere aurrean nire iritzia libreki espresatzeko zailtasunez, ez nion planari uko egin. Horregatik, txintxo-txintxo, hondartza nudistarantz abiatu nintzen, lagun ezin hobez. Hondartzara ailegatu bezain pronto, June tiradun nikia eranzten hasi zen, bere bularretako gorriak argitara utziz. Gero, prakak erantzi zituen eta barruko arropa ere... kanpora! Gorputzean oihal kutsurik utzi gabe geratu zen nire aurrean, irmo. Ustezko disimuluz, Juneren gorputza analizatu nuen eta... arranpola! Zeinen gorputz polita daukan Junek! Azala arkumearen zuritasunaren gainean zuri geratzen den horietakoa, aingeruaren zintzotasunaren erreflexu den isla bezala, bular ttipi boro-

bil-borobilak, aldaka zabal, gerri estu eta ipurdi ezin ponpoxoagoa. Bat-batean, nire ametsetatik jaitsiarazi ninduen Junek, arropak erantzeko agindu baitzidan, berrari begira gutxienez bost minutu neramatzala jakinaraziz. Egoera horrek erabat lotsarazi baninduen, lotsa horretatik haratago zihoan nire eskuaren aparkaleku berria zein zen ikusteak. Azkenean, nire barneko lotsa guztiak gailenduz, lortu nuen Juneren aurrean biluztea. Sentsuala iruditu zitzaidan gu bion irudia hondartzan, biluzik, aurrez aurre ikustea. Toailak harean kokatu genituen eta krema emango zidala esan zidan, berak aurrez etxean eman zuela eta. Toailan etzan nintzen apur bat urduri eta, segidan, June krema ematen hasi zitzaidan. Bere esku leunak nire azala ferekatzen hasi ziren, suabe baina, aldi berean, intentsu. Eta bere esku kitzikagarriek nire azala ukitzen zuten bakoitzean, areagotuz zihoan nire desira.

—Ioana, bukatu dinat! Uretara?”

Gaurkoz ez daukat besterik kontatzeko; halere, gaurkoa berezia izan da, nire oraingo orientazio sexuala baldintza baitezake. Dena denborak esango du.

2000ko urtarrilaren 9a, igandea

Gaur ez dut ametsik egin; baina esnatu eta aurreko ametsa beste era batera bukatu balitz zer sentituko ote nuen pentsatu dut. Egia esan, gustukoagoa izango nuke ametsen Junek musu eman izan balit. Bere ezpain delikatuak nire lepo aldean pausatu eta gorantz abiatu balira, bere ezpainak nirearen gainean, ahoko muskuluak dantzan eta jolasean hasi balira... Hainbeste desiratu-tako unea, tximista bezala instant batean pasako zitzaidan.

Zorionekoa June ezagutu-tako eguna! Beraganako maitasuna hain da handia, hain mugagabea... Bera nire dena da eta ni ez naiz gaur naizena bera gabe. Berak bizitzan hain garrantzitsu diren balioak irakatsi dizkit, eta zorioneko sentiarazi nau. Berak niregatik egin duena ez da zerutik ilargia emanda ere ordaintzen.

Ai, ama! Junez maitemindurik ote nago? Egunerokoan idatzi berri ditudan eta idatzi ohi ditudan loreak... Gau batean egindako amets hura. Berarengandik urrundu eta berriz ere berarekin egoteko gogo... Nire betiko lagunik onenaz maitemindurik? Ez, ez, ez... Ez da posible, nik betidanik mutilak izan ditut gogoko... Askida! Alferrik ari naiz neure buruari gezurrak esaten, horrela dena errazago izango delakoan. Argi dago June mai-

te dudala. Nire buruari gezurrak esatea eta bizi osoan horiek sinestaraztea lotsagarria da; baina hori da orain arte egin dudana. Hala eta guztiz ere, lehen ez nintzen honetaz guztiaz jabetu. Agian, berarekiko sentitzen nuen laguntasunarekin nahasten nuen. Errealitatea onartu behar dut: lesbiana naiz eta nire lagunik onena maitate dut. Saia naiteke June ikustean berotzen nauen sua itzaltzen; baina, halere, nire barnean egongo da su hori, ketan bada ere. Errazagoa dirudi gauzak ukatzea eta errealitate faltsuan bizitzea besteek esango dutenaren beldur egon gabe, baina horrek ez lidake nire bihotzak benetan agintzen duena beteko; haatik, ez du merezi errealitatea ez onartzerik.

2000ko urtarrilaren 10a, astelehena

Gaur etikan sexualitatea eman dugu eta, kasualitatez, sexualitateko azpi sailkapeneko gai bat jorratu dugu: orientazio sexuala. Gaiari heltzeko, gure tutoreak galdera erraz bat planteatu du: zenbat orientazio sexual daude? Eta nola deitzen dira? Ikasgela oilategi bat bihurtu da bat-batean; ikasgelan denetik erantzun dute, eta askok kalifikatibo itsusiak erabiliz. Gaurkoz, nazkatu naiz egunerokoa idazten. Umore txarrez nago, ez bainekien ikasgelan horren jende atzerakoia zegoenik. Ikaragarria da ignorantziak errealitatea noraino lausotu dezakeen. Onartu beharra dut, halere, lehen orientazio sexualagatik pertsona bat epaitzea gaizki baneritzon ere, orain nik egoera bizi izanda, are okerrago ikusten ditudala horri buruzko tabuak.

2000ko urtarrilaren 11, asteartea

Atzoko ikasgelako panorama tristea ikusirik, gaur konturatu naiz, homosexualitatea gaixotasuna izatetik oraingo egoerara ailegatzeko zerbait aurreratu den arren, oraindik ez dagoela erabat onartua. Historian gai hau oso gaizki ikusia egon dela jakina da. Duela zenbait urte, erlijioak pisu handia zeukan gizartean. Elizarentzat familia bat emakumeak, gizonak eta beren seme-alabek osatutako taldea da, eta ez dute beste erako familiarik onartzen. Homosexualitatea gaixotasun gisa hartzen zuten eta, norbaiti joera hori igarriz gero, sutan erretzen zuten. Naziak ere ez ziren oso urrun ibili, homosexual guztiak kontzentrazio eremuetara eramaten zituzten heriotza zigorrera kondenatuz. Gaur egun herrialde garatuetan egoera zerbait aldatu dela dirudien arren, ez da oso harritzekoa komunikabideetan edo kalean ber-

tan homosexual bati norbaitek bai jazarpen psikiko edo fisikoa eragitea. Iranen, gaur egun, homosexual orok ezin izaten du bere orientazio sexuala argitara eman, hori egiten badu, heriotz zigorrera kondenatzen baitute. Eta horrela mila adibide... Homofoboak, gehiengotan, hezkuntza homofoboa jasotzen duten pertsonak dira, eta ikasi dutena sinesten dute, horrela jazarpena eragiten dutelarik. Oraindik, beraz, asko dugu guztiok aurreratzeko. Bai, guztiok diot, hau ez baita homosexualon lana soilik, gizarteak bere osotasunean egin beharreko lan bat baita, pausuz pausu lortuko dugun garai-pena izango delakoan...

2000ko urtarrilaren 12a, asteazkena

Ikuspegi liberala daukat; baina, halere, kosta egiten zait homosexuala izatea. Izan ere, atzo egunerokoan azaldu bezala, mundu honetan errazagoa da heterosexuala jaiotzea. Nire iritziz, kondizio sexuala, ez da ez harrotzeko ez damutzeko ezer, pertsonaren ezaugarri bat besterik ez da, bere neutraltasun puruan. Homosexualok, halere, gure burua garen bezala onartzeko prozesua burutu behar dugu, besteengandik ezberdinak ez garela gure buruari sinestarazi; heterosexualak jada jaiotzetik onartuak dauden bitartean; homosexualok gizarteari pertsona arruntak garela erakutsi behar diogun bitartean.

2000ko urtarrilaren 13a, osteguna

Junerekiko dudan maitasuna gero eta sutuagoa da eta kanporatzeko beharra sentitzen dut. Ezin dut isilik egon, baina hitz egin nahi dudana bakoitzean bi lagunek hori egitea debekatzen didate. Lotsa eta Beldur dira nire lagunak, oso gorroto ditudan arren, beti nirekin daude eta, laguntza behar dudanean, dena kakaztera etortzen dira. Ez dakit Junek nola erreakzionatuko lukeen berekiko dudana maitasuna adieraztean: agian, berak ere maite nauela erantzungo lidake; bestela, gurea laguntasun soil batean geratuko litzateke, lehengo xera berdinek gabe, baina tira! Edo, bestela —okerrago—, agian nire barnea hustu eta geroztik ez lidake kasu gehiagorik egingo. Egunetik egunera gehiago desio dut: bere gorputza, ahotsa, ezpainak... irrikatzen ditut. Halere, ezin dut jasan nik bizitzan gehien maite dudana pertsona: nire sexu berekoa eta nire lagunik onena izaterik. Halere, egia da, inork ez duela nor maitatu hautatzen. Maitasuna, ezerezetik etortzen den txingarra da, eta pixkanaka-pixkanaka txingar hori zure barnean hedatuz sua bihurtzen joaten da. Eta su hori, ez daukazu nahi-

ta itzaltzerik, ezta urmael bateko ur guztia gainera botaz gero ere.

2000ko urtarrilaren 14a, ostirala

Gaur, aspaldiko partez, Jokinekin hitz egin dut. Harri eta zur geratu naiz jolas-orduan Jokin hurbildu zaidanean. Izan ere, harremana hautsi genuenetik, ez genuen gehiago hitz egin. Nahiz eta berak ez aitortu, jakin banekien amorrarazi egin nuela berarekin izandako jokararekin. Egia da bidegabe jokatu nuela berarekin; orain badakit, eta ez dut berriz harri berean estropezu egingo. Ez naiz maite ez dudana batekin aterako, ezta horrek arrakastatsuegi egingo balit ere. Oraindik nitaz ahazterik lortu ez duela jakinarazi dit. Ikasgelan nik nori begiratzen diodan aztertzen egon omen da, eta Joanesi asko behatzen diodala konturatu dela esan dit. Barre txikia atera zait. “Berak baleki nor maite dudana...” esan dut nire baitarako eta, nire pentsamenduan murgildurik nengoela, erantzuteko agindu dit. Berak, nahiz eta badakien nik ez dudala bera maite, zoriontsu egingo nauen mutila zein den jakin nahiko lukeela esan dit, nire nahia betetzeko edozer gauza egingo lukeela gaineraturik. Erabat txundituta utzi nau bere diskurtsoak; batzuetan zuk kontuan hartzen ez dituzun pertsonak, zeuk uste baino gehiago maite zaituztela ohartarazi nau berak nirekiko izan duen jarrerak. Maite dudana pertsona Joanes ez dela jakinarazi diot; baina, horrekin nahikoa izan ez duenez, ez du etsi niri loa kentzen didan pertsona zein den jakin arte. Eta, azkenean, “June maite dut!” oihukatu diot, horrelako galdeketa jasan ezinean. Lotsagarri sentitu naiz hori oihukatzean; baina, aldi berean, barneko tentsioak pixka bat baretu eta zamaren laurden bat gainetik kendu dudana sentsazioa izan dut. Jokin, normala den bezala, erabat txundituta geratu da; arraroa egin zaio ni lesbiana izatea. Beti kanpoko gai bat bezala ikusi duelako harritu da, ez baita bate-re ideologia atzerakoikoa. Ahal duen guztia lagunduko didala esan dit; badakiela trantze gogor batetik pasatzen ari naizela, eta lasai egoteko. Ekaitzaren ondoren barea etorriko dela esan dit, eta ziur dagoela Juneren erantzuna dena delakoa izan arren, ongi hartuko duela egoera. Besarkada bat eman diot, ni ulertu izanagatik eta momentu kaskarretan emandako animoak eskertzeko.

2000ko urtarrilaren 15a, larunbata

Telefono hotsak esnatu nau nire lozorrotik. June da; Jokinek deitu omen dio, nik zerbait garrantzitsua esan

behar diodala esateko. Jokin hiltzeko beharra sentitu dut momentuan! Baina, hori egin ordez, erabaki zibilizatuago batera jo dut: telefonoz dei egin diot, bereak eta bi esan eta eskegi egin diot segidan. Junerekin hitzordua lauretan dut; zerbait pentsatu beharko dut, berekin hitz egiteko. Edozer, maite dudala izan ezik behintzat. Joan aurretik, Jokinen deia jaso dut, eta hizketan hasi zait arrapaladan:

—Ioana, ez dun horrela jartzekoa! Gainera, kexatu egingo haiz, lehenengo pausua nik emanda!

—Jokin, nik ez nian nahi hik ezer egiterik! Nik pausua eman nahi diadanean, orduan eskatuko diat laguntza, baina orain ez!

—Hik zer uste dun! Hemen inor ez dun hire maitasuna noiz etorriko zain geratuko!

—Ez diat hirekin eztabaidatu nahi; egia esan, ez diat hitaz ezer jakin nahi! Zer pasako duk berak hau jakinez gero nitaz ezer jakin nahi ez badik e? Zer pasako duk orduan?

Hori esan eta ez diot erantzuteko astirik eman, erabat amorrarazita bainago.

Ordua ailegatu da, azkenean. Armairuko arroparik politena jantzi dut. Ez noa ezer aitortzeko gogoz, baina ideiaz aldatzen badut ere... Hitz ordua dudan plazarantz abiatu naiz; bertako aulkian dago eserita June. Beti bezain irribarretsu egon beharrean, kezka aurpegia darama soinean. Berarengana jotzean esan diodan lehenengo gauza lasai egoteko izan da. Gero, eskolako lanen inguruan hasi gara hitz egiten, igogailuan bizilagunak topatu eta, zertaz hitz egin ez dakitenean, eguraldiaz hitz egiten hasten diren bezala. Momentu batez, lehengo urduritasun guztiek ihes egin didate, eta erabat eroso sentitu naiz. Nik hitz egitean, Junek sekulako arreta jartzen didala ohartu naiz eta oso gustura sentiarazi nau horrek. Bat-batean, Junek zertarako geratu garen galdetu dit, eta erosotasuna desagertu egin da bat-batean. Bihotza taupada bizian sentitu dut bularretik atera beharrean, eta odolak, berriz, errailetatik ihes egin nahiko balu bezala sentitu dut. Zenbait esan behar diot! Baina zer? Gezurra esaten badiot, segituan harapatuko nau... Beraz, nik batere adostu gabe, nire mingaina dantzan hasi da. Egoera kontrolaezina izan da; nire bihotzak ezin izan du geldiarazi. Azkenean, esan diot esan beharrekoa!

—June, badira urte batzuk elkar ezagutzen dugula. Ni beti jolas orduan baztertuta egoten nintzen, lagunik gabe. Eta beti zuei begiratzen nizuen inbidiaz. Bai-

na, batez ere, zuri begiratzen nizun. Oso erakargarria zinen zu niretzat. Orduak pasako nituen zu saskibaloian jolasten ikusten. Oso neska aktiboa zinen, alaia, jatorra, lagunen laguna, eta apala. Gutxiek lortuko luke te zuk izan zenuen ausardia; ikastolako neskarik arrakastatsuen izanik, niregana etortzeko adorea izan zenuen, nahiz eta jakin horrek zure postu pribilegiatutik urruntzeko aukera suposa zezakeela. Zure egoera aldatu ez arren, oso ausarta izan zinen; eta oso pertsona ona, ikaragarria. Maite zaitut oraindik ere, bai. Nire desira bakarra zara. Txikitatik maite izan bazaitut ere, orain konturatu naiz errealitateaz. Ez dakit zer deritzozun honi guztiari; baina, zuk desio ez banauzu, onar dezaket; horrelakoa da bizitza, galtzen ere ikasi behar da. Baina mesedez, ez...

—Ioana, utz dezagun hizketaldia, eta goza dezagun hainbeste desio izandako momentuaz!

Esan eta egin... azkenean ailegatu da momentua! Bere ezpainak nireetan pausatu dira, bere besoak nire bizkarraldean besarkaturik. June eta ni. Ni eta June. Erlojuen orratzek gehiago lanik egin nahiko ez balute bezala, denbora une batez gelditu dela iruditu zait. Garrantzitsuena biok eta unea izan da. Utikan aspaldidanik nire bidai lagun izan ditudan lagunak! Azkenik, lortu dut erabateko zoriontasuna!

2020ko martxoaren 4a, asteartea

20 urte. 20 urte pasa dira, Junerekin izaniko lehen kontaktutik. 20 urte pasa dira, zalantzaz beteriko nerabea izan nintzenetik. Gaur, 35 urte dauzkat. Jada heldua naiz eta Junerekin ezkondua nago, mundu honetan betidanik gehien maite izan dudan pertsonarekin. Amsterdamen bizi gara, norbera askatasun osoz bizi den hirian. Duela gutxi “City of freedom” goitizenez izendatu dute hiria. Hemen denok gara onartuak, etnia eta kondizio sexual ezberdineko jendea. Ni abokatua naiz, beti gogoko izan baitut injustizia ororen aurka jardutea, June, berriz, mekanika munduan murgildurik dabil buru-belarri. 20 urterekin autoekiko zaletasun ikaragarria hartu zuen eta tailer bat ireki du Amsterdam inguruko herri txiki batean. Oso zoriontsuak gara biok. Nik oraindik nire familiarekin kontaktua mantentzen dut, nahiz eta distantzia handia egon tarteko. Nire familiak beti onartu izan du, Junerekin daukadan harremana. Juneren familiak, ordea, zailtasun gehiago izan ditu onartzeko; amari hasieran kosta bazitzaion ere, orain erabat onartzen du Juneren kondizio sexuala. Baina June-

ren aitari dagokionez, jakin zuenetik ez zion Juneri hitz egiten. Ez zuen alabaren jokaera ulertzen. Eta ez zuen ulertzeko astirik izan, duela hiru urte minbiziz hil baitzen. June, bere aita hiltorian zela jakitean, Amsterdametik bidaiatu zuen, aitari azken agurra emateko asmotan. Bazekien denbora asko pasa zela berarekin harremanak eten zituenetik; baina, zalantzarik gabe, azken hatsa ematean berarekin egon nahi zuen. Aitak, hain zuzen, bere azken momentuan begiak kliskatuz, alabari gela-tik alde egiteko eskatu zion. Ez zuen bere azken momentuan ere begien aurrean nahi izan. Junek, ordutik, arantzaren baten ziztada dauka bihotzean. Baina pixkanaka-

pixkanaka, nik emandako maitasunaz, sendatuz doa bere zauria. Eta, azkenean, ohartu da horrelako pertsonak, aita izan arren, ezjakin eta krudel batzuk direla. Juneren aitak ez zuen alabatzat izandako altxorra apreziatzen jakin, eta, horregatik, beragatik gehiago ez sufritzea eskatu nion behin Juneri. Orain, gainera, haur bat adoptatu dugu Balitik. Ikaragarri mutiko polita da. Jokin jarri diogu izena. Gure zoriontasuna Jokini zor diogulako. Agian, ez ginelako izango gaur garena haren laguntzarik gabe. Esperientzia honek eman didan ikasgaia da, bizitzan bihotzak agindutakoa eginez gero, zoriontsua izan zaitezkeela.

Mirena

Eli Urdangarin Zumeta

*Martxoko trumoi*a, *apirileko berrogei eguneko ekaitza* zioten gure aiton-amonak, eta hala izan ere. Baziren egun batzuk jada, zeruko errekek aske sentitzen zirela, baina haien askatasuna ez zen gozoa Mirenarentzat, gazia baizik. Uren sakontasuna lurrarekin liskarrean zebilen, zurrumbilo eroak sortuz.

Lur koloreko zuku ilunbetsuak uraren gardentasunak estaltzen zituen eta egoera hark Mirenaren irribarrera ostentzen zuen. Mendiek ur herdoiltzuak zekartzaten eta ezin zituen lurrinez goxatutako zapi eta oihal leunak garbitu.

Mirenak Euskal Herriko erreketako urekin eta mendietako iturriekin harreman estua izan du urte askotan, urteak baitaramatza gure uren ondoan. Mirena, inguru hauetan geratzen diren lamia bakanetako bat da.

Ortzadarra izeneko zubiaren hur-hurrean ageri izaten da. Zubi hori kuttuna du, berak lagundu baitzion Akox artzainari bukatzen, mesedeen truke, noski. Lamiak oso langileak izan dira beti; Euskal Herrian dauden hainbat zubi lamia emeek eginak dira eta trikuharriak, aldiz, lamia arrek. Horregatik, Euskal Herriko artzainek ondo ezagutzen dituzte lamiak. Akox artzainak jana uzten dio zubipean eta Mirena ilargiaren babesaren azaltzen da.

Larru labainkorreko anderea, goizero, uraren marruskadurarekin jolasean harantz eta honantz, esnatzen joaten da. Eskamez estalitako zilarrezko soinekoa jantziz, ispiluaurrean esertzen da goizeko ile errebeldeak baretu nahian, abesti goxoak abestuz. Mirenaren urrezko orraza nahitaezkoa da bere ile gorrixka gozatzeko eta maitatzeko.

Orrazearen konpasean gazte anitz liluratzen ditu, baina mutikoen, etxekoen aginduz, etxera bueltatu beharra izaten dute penaz, gurasoentzat lamiak, Errusiako matriosken moduan, kanpotik panpoxak eta barrutik hutsak baitira; horrelako amodioak zorigaiztokoak eta ezinezkoak izan ohi direla pentsatzen dute.

Egunero eta hutsik egiten ez dioten bi lagun leial ditu gure lamiak. Uxana eta Axin dira. Uxanaren amona, Estebeni, adindua da eta identifikatua sentitzen da

euskal mitologiako gertaerekin, antzinako balizko jainko edo heroien egiazko gertaerekin. Berak badu Mirenaren berri, bere aiton-amonak ere erreka hartara azaltzen baitziren. Garden erreka. Estebeniren etxearen ondotik pasatzen den eta Mirenaren arnas toki den erreka.

Estebeni, hainbat eta hainbat ukendu egin zen garai haietan Mirenaren aiton-amonekin. Isuzko eta Leixuri goizean goiz azaltzen ziren inguru haietan eta erreketako lore eta adarrekin jarduten ziren sendagai eta ukendu berriak egiten.

Ukendu haiek ezagunak egin ziren inguru haietan, Estebenik azokan saltzen baitzituen. Jende ugari asko zor die sendagai haiei eta garai haietan errespetua zitzaien Isuzko eta Leixuriri; gaur, ordea, inbidiak jandako bizilagun asko dago; lamiaren liraintasuna eraman ezin duena, alegia.

Xutina izeneko sendagaia zen ezagunena eta arrakasta handiena zuena. Azalerako, begietarako eta arnas aparatuko arazoetarako erabiltzen zen Xutina. Enborrak ikusten uzten ez duen kolore berdeko azal barruan dauden fruitu eta loreekin egiten da. Loreak moreak dira, eta lau lore-hosto txiki dauzkate. Oso usain berezia daukate.

Beste bizilagunentzat deserosoa da beren senideak erreka joatea Mirenaren edertasuna kontenplazera.

Uxanari, ordea, amonak lamiez fida zitekeela, pasio handiko gizakiak direla eta bizitzako helburuak argi izaten dituztela beti esan ohi dio.

Inguru hauetako kondaira asko ezagutzen ditu, bistan denez, amona Estebenik, eta zer esanik ez erreketako legendak. Makina bat aldiz Uxanaren amonak ikusi beharra izan du, herriko hainbat emakume handiuste, burua makur-makur eginda, lamiei eskerrak eman ez eta esandako hitz pozoitsuak irentsiz.

Lagun minak egin dira Uxana eta Mirena, bai, eta baita Axin ere; baina Mirenak Axin beste begi batzuekin ikusten du, bere bihotzaren jabe egin da.

Neguko egun hotzak iritsi dira eta amonak, Uxanari gauean atera baino lehen beti gogoratzen dio: *Negu-*

ko eguna, argitu orduko iluna. Uxanak badaki amonari kasu egiten, zaharren hitzak balio handikoak direla pentsatzen baitu.

Baina amonak badaki fida zitekeela bere ilobatxo txikiak, zintzoa baita. Lamiarengana joaten ziren iluntzean; pare bat ordu besterik ez, ezin zuten egon gehiago berarekin. Mirena ordu batzuk bakarrik egoten zen lehorrean, bere larruaren agindupean beti ere. Azken minutuak Axinentzat bakarrik izaten ziren, nola ez.

Egunak aurrera zihoazen, baina egun denak ez ziren onak erreka damarentzat. Mirenak bere penak urpean desitxuratu ondoren, isats dirdiratsua lurrean ezarri bezain laster, orduak pasatzen zituen haitzetan dauden hosto busti galduen ondoan, goroldiozko tontorrean malenkoniak hartutako aurpegi tristea erortzen utziz.

Basoan, hostoen azpian, erreka ondoan, lainoaren artean, hainbat izaki bizi dira eta jendea ez da konaturatzen.

Itsas zabalean zikinkeria nabaria da, ikusgai delako, baina Garden erreka urak ikusezinak diren elementuz bortxatuak daude, hitzez eta irainez urratutako odol tanta likitsez beteak. Mirenari zuzenduak, noski, ezberdintasuna onartzen ez duten mamutzarrez.

Haizeak ia dena eramanez, baina ez barruan geratzen dena. Bizikideen mesprezua, zama, erantzunik gabeko maitasuna, dena zuen saminean gure lamiak.

Egun oroz ura beherantz zihoan Garden errekan, baina ez nahikoa malko negarrak zurrupatzeko, ezta maitasun egarria kentzeko ere.

Axinek ere maite zuen Garden erreka lamia, baina gurasoek eragotzi egiten zioten eta korrontearen indarrak ito egiten zuen. Hainbat hilabete, aste eta egun

zeramaten beren habian elkar ikusiz; baina, azken egunetan, Mirenaren bihotzaren jabea ez zen ageri.

Erreka damaren eskamak lehortzen, amiltzen ari ziren poliki-poliki; kartoizko lamia zirudien, minutuak, orduak, egunak... zain. Uxana bere amonaren Xutina ukenduaren bila joan zen, lamiaren larrua bere onera etor zedin; isats osoan zabaldu zioten amonak eta ilobak, baina ez zegoen zer eginik: zauria barruan zuen.

Argi-printzarik gabeko izar baten moduan, apaltzen hasi zen erreka harribitxia, Garden erreka dama; alferrik zen, ez baitzen gehiago azaldu bere maitea.

Lamia indarge zegoen, makal; haren bihotz taupadek eta hats isilak azken arnas arrastoak ziruditen... baina, bat-batean, azken barruko sua, garra, azken sugarrak txispa sortuz, indarrak asetzea lortuz, mugimendu bat egin zuen; Uxanak eta Estebenik bultzada bat eman zioten, bai: azken saltoa Garden erreka. Eskuz agur eginez, alde egin zuen ur berrietara.

Pausoak emateko gaitasuna izan behar da, norberaren ahotsari entzuten jakin, Axinek jakin ez zuena. Besteen esanek jabetu zuten.

Garden erreka andreak garbi zeukan, zubi bati eusteko, bi zutabe behar direla, biak indarrez sendoak, biak pentsamenduz zehatzak; batek huts eginez gero, etorkizunak ez duela esatekorik, ilusioek ez dutela gogo bizirik. Mirenak badaki nor den eta harro dago, bere ingurukoek ez onartu arren.

Ilusioa du bere bizitzaren odol eta odol tantei jarraituz bide berria bilatuko duela; bitartean, aurrera jarraituko du, bata besteari errespetua dion erreka gardenera iritsi arte.

Aitonaren apustua

Nere Manterola Arostegi

1. Txikia nintzanean,
urrun zan hondartza;
Orio zan orduan
ura ta baratza;
lau etxe baziren, bai,
lau etxe ta plaza;
bizimodua, berriz,
genuen arrantza.
2. Haurrak ibiltzen ginen
moilan igerian,
arropak kendu eta
dena agerian,
jendiak botatzen zun
txanpona airian,
bakarra hartu ta're
poza barrenian.
3. Modesto botatzen zan
murgil zubitikan,
harek ez zeukan eta
inon bildurrikan,
ondo moldatzen nintzen
ni ur azpitikan,
baina ona ez nintzen
han ni bakarrikan.
4. Onentsunen artean
zagon Antonio,
hura irabaztea
nuen nik desio;
azkenen, egin nion
plazan desafio:
ur azpian ez zala
netzat arerio.
5. Moila gaina bete zan
jendez azkar-azkar,
Orio dena zagon:
gazte eta zahar;
batzuek animo ta
beste batzuk marmar
beldurrak jota nengon
hankak ere daldar.
6. Bazeuden bost txalupa
errio erdian,
gaurko baporen alden
txikiak agian,
pasa behar genitun
denak ur azpian,
al zan urrunen helduz
murgil igerian.
7. Ez zen udara baina
sargori zegoen,
orduak markatzen zun
laurak eta laurden,
txanpon batek esan zun
zein izango lenen:
Antonio aurrena
ni, berriz, bigarren.
8. Ez zun harek bezala
inork saltatuko,
ematen zun ez zela
inoiz azalduko,
errekan hiru laurden
zitun pasatuko,
bola bat jarri zuten
markaren lekuko.
9. Oso ondo egin nun
saltoa hondora,
txukun nindoan baina
pasa zan denbora,
arnas faltak ninduen
erabat aztora,
ta txalupen artera
egin nuen gora.
10. Bi txalupen artetik
jendearen buila
"Ito dek!" ta "Ito dek!"
"Galdu da mutila!"
Berriz murgildu nintzen,
hartuz arnas pila,
ta lasai joan nintzen
garaipenan bila.
11. Burua atera nun
ikarati, izu,
txalo ta biba hotsak
egin zidan kasu,
tranpataz ez zen inor
konturatu, aizu!
ta nik ez nion eman
inori abisu.
12. Iloba jakin duzu
egin nuen tranpa,
denbora pasa da ta
nahi duzunai konta,
umorez hartu zazu
aitonaren falta,
bizitza bestela're
serioa da ta.

Aurrera doan herria

Garazi Urretabizkaia Zabaleta

- 1
Dugunarekin bizitza
konplikatu da antza,
beti eduki ohi dugu
gehiagoren esperantza.
Nahiz eta bizi galant honek
berekin dakarren hatsa,
nahikoa da gizarte honetan
batzuk mugitzea hatza
herritarrok mutu, gor, itsu
botereak hortan datza:
politikak aurrera edo
atzerantza garamatza?
- 2
Abiadura handiko tren
zeinen tren zoragarria!
Berak ere ezingo du kendu
askok duten egarria.
Nahiz eta itxuraz aldatu
zerria beti zerria,
kuttuna zara legealdi
oso baten oinarria.
Zeinen polita geratzen den
“Aurrera doan herria”
gutziz desberdina izan arren
herriaren aldarria.
- 3
Orain Bilbon, ordu erdira
Kontxan zehar, a ze guaia!
Europar izan nahi badugu
bost minututan Hendaia.
Euskal Herriari itzulia
egun baten ia-ia.
Txikitasunean handituz
diru ustelaren nahia,
mendi, larre, soro, errekek
eman bezate epaia
astakeri hau geratzeko
oraintxe dugu garaia.
- 4
Zitzu bizian joango da
Udalaitzetik behera
parke tematikoetako
Montaña-Rusan antzera.
Y grekorik ez dugula nahi
eman behingoz aditzera
Baina gorrik handiena da
entzun nahi ez duen bera.
Abiadura Handiko Trena
saldu nahi diguten zera,
baina Abiadura Handiko
Suntsipena ez ote da?
- 5
Politika, ai! Politika!
ekintza huts, hitz andana.
Eta Natura, ai! Natura!
inork nahi ez duen zama.
Diruan soilik pentsatzea
hori da beraien lana...
Etxe gabe utziko dute
Mari, Anbotoko dama,
lokomotore bat baitoa
mendi erraietan barna.
diru usain handia eta
tristezia daramana.
- 6
Bilbo, Itsasondo, Zornotza,
Ordizi ta Elorriko...
Hiru-lau katuk arre esan,
herri oso batek ixo!
Batzuek dena erraz dute,
oztoporik gabe, liso.
Ezin da horrela jarraitu
hanka sartze honeri so!
Belarritarra xuxurlatu
emekiro, gozo-gozo,
txikiturik ez dugula nahi,
maitatzen dugula oso.
- 7
Ez dugu hau bizi baldintza
baldintzazko herri hila,
baldintzak askatzeko giltza
aspaldi gabiltza bila.
Baina agintezkoa soilik
geratzen zaie hurbila.
Hau ez dugu negoziaketa
hau ez da bide zibila,
eta ez gaude okertzeko
inola ere ukabila!
Bizkortasuna nahi badute
denbora gera dadila.
- 8
Batu arreba eta anai
batu lagun eta etsai,
lubaki zaila bada ere
Ama-herria dugu zai!
Iragana maitea dugu
etorkizuna ere bai
hori dela eta herria
ez dugu jarriko salgai.
Bide zuzenetik gabiltza,
bide horretatik jarrai!
Handikiek esan arren bai,
ozen esan dezagun: jai!

Iraganaren 1000. preso

Eñaut Marti Zinkunegi

Kale bazterrean,
hotzez dardarka,
mamuez betetako ortzi ilunak
bidaltzen dituen tiroek
gogor kolpatzen naute
gora begira jartzen naizenean.

Indarrik gabe,
isilik,
ingurura begira,
norbait zelatan izango banu bezala.

Eserita,
denborari alde egiten utziz,
bukaeraren zain,
beldur guztiak nire gain,
ez naiz sentitzeko gai.

Bada denbora inorekin hitzik egin ez dudala,
agian ahaztua dut hitz egitea jada,
baina berdin zait,
inoiz gehiago ez dut beharrik izango eta,
inork ez du nahiko nirekin hitz egin, beharbada.

Negar zotinka,
delirioz josita,
dena zergatik den horren zaila
nire buruari galdezka,
bizitzaren argazki guztiak
pasatzen zaizkit begietatik noizbehinka.
Baina zoritxarrez,
ez noa hiltzera,
damu anderea besterik ez da,
berriz ere
nire erraietan ate joka.

Lo hartzen dudan egun horietan
esnatzen nauen anderean
jakin nahi ez dudan guztia,
ahaztu nahi dudana,
gogoratzen didan anderea.
Baina, hala ere,
dena ez da horren iluna.
dena ez da horren beltza,
dena ez da negarra...
baina zein engainatu nahi dut,
hainbeste aldiz errepikatuz,
dena ez dela horren txarra?
Nire bizitzan, zorigaitza besterik ez da,
askotan uste dut alferrik nagoela,
arrotza sentitzen naiz,
gaizki,
bakarrik,
inork ez du nire beharrik,
ez naiz etengabeko bizitza honen
katearen zati.

Penak alde batera utzita,
behingoz presentatzera noa,
inork zalantzak baditu,
argitzera noa.

Don Simon tetrabrik-a eskuan,
alkohola eta drogen errutinan,
iraganaren 1000. preso naiz,
orainaren kartzelan,
beste bat,
hainbaten artean,
eskuak eta hankak artega ditudalarik,
janari azkar
eta bizitza azkarragoko
kapitalismoaren sarean.

Ez dut izenik,
ez naiz gogoratzen behintzat,
jarri zidatenik,
eta ez dut,
ez arrazoi
ez itzalik,
ez naiz ezer,
ez naiz gogoratzen behintzat,
zerbait naizenik.

Soilik dakit,
iraganaren preso bat gehiago naizela,
noraezean galdu den indibidua,
munduak kasik ez dakiena existitzen denik ere,
dena berdina izango zena,
ni gabe,
baina heriotzak
bere bila etorri nahi ez duena,
infernuan ere,
berarentzat lekurik ez duena.

Egia esan,
bizitza tristea,
ez munduan,
ez infernuan,
inork ikusi ezin duen lekuan,
kale bazterrean,
hotzez dardarka,
hori naiz ni,
iraganaren 1000. preso.

